



ESTRES-EKOKARDIOGRAFIA REGADENOSÓN®-ATROPINAREKIN

Zertan datza proba?

Bihotza ultrasoinuen bidez bistaratzean datza, farmako bat hartu aurretik, bitartean eta hartu eta berehala; farmako horrek odol-fluxuaren banaketaren alterazioa eragiten du zure bihotzean.

Nola etorri behar dut probara?

EZ duzu hartu behar kaferik, terik edo koladun edaririk gutxienez aurreko 12 orduetan. Elikagai solidorik ez jatea komeni da azterketa aurreko bi orduetan. Proba eskatu duen medikuak adieraziko dizu ohiko medikazioa hartu behar duzun ala testa egin aurretik hartzeari utzi behar diozun.

Proba non egingo didate?

Miaketa Osagarrien Unitatean, AUO-Txagorritxuko Ospitalearen egoitzako A eremuan, 5. solairuan.

Probaren emaitza eskatu zuen medikuaren kontsultara bidaliko da. Txagorritxuko egoitzaz kanpoko eskaeren kasuan, emaitza pazienteari berari emango zaio, proba egin eta berehala.

Nola egingo didate proba?

Etzanda egongo zara, ezkerreko aldearen gainean, ohatila batean, gerritik gora biluzik. Kabledun hiru eranskailu jarriko dizkizute sorbaldetan eta saihetsaldean, azterketan zehar elektrokardiograma ikusteko. Hodi bat jarriko dizute serumarekin («tantaz tantakoa») besoan; bertatik farmakoa injektatuko dizute. Ohiko elektrokardiograma bat (EKG) egingo dizute, eta mahukatxo bat jarriko dizute ezkerreko besoan, presio arteriala neurtzeko. Ondoren azterketa aurreko ekokardiograma egingo dizute, bularreko alde desberdinetan mikrofono antzeko bat jarriz, bihotza alderdi desberdinetatik miatzeko.

Farmakoa hartzen ari zaren bitartean, hainbat erregistro ekokardiografiko egingo dizkizute, hainbat aldiz hartuko dizute tentsio arteriala eta hainbat elektrokardiograma egingo dizkizute.

Proban zehar, honako hauek ager daitezke: goragaleak, zefalea (buruko mina), palpitazioak, beroaldia eta bularraldeko mina. Proba bukatzean, baliteke Regadenosón® farmakoaren eragina neutralizatzen duen sendagai bat (aminofilina) ematea.

Azterketak 10 minutu inguru iraungo du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Bizitza normala egin dezakezu, eta, behar baduzu, zure eguneroko laneko edo etxeko zereginetara itzuli.